

MENDIA ETA IDAZLEAK

AURTEN, Euskal Herriko mendizale erakundearen 50garren urteburua betetzen bada ere, oraindik beste bi urte falta zaizkigu PYRENAICA aldizkariaren 50garren urteburua ospatzeko.

Mendi kirola, Naturarekin har-eman hertsian, literaturagintzarako auke-rakoa da, eta honegatik PYRENAICA-k oso ongi betetzen du mendizaletasunak berakin duen alderdi berezi hau. Gauza hau gogoan harturik, zenbait oroitza-pen ekarriko ditugu orrialde hauetara.

Mendiari, Naturari dagokion literatura lantzeko, norbaitek esango digu ez dela poeta-sena handirik behar berez ederra denari kantatzeko. Gogora dezagun baina, poesia edertasunaren azalpen idatzia besterik ez dela.

Ugari izan eta dira idazleak, bai hitz-laxoz eta bai hitz-neurtuz! Mendiaren, Naturaren ederra sentiarazi digutenak.

Hala ere, maiz, alderantziz gertatu ohi da. Hau da, lehen mendizale zena eta gero idazle bihurtu dena. Esaterako, denen gogoan daude: Guido Rey, R. Frison-Roche, Maurice Herzog, Erip Shipton, eta abar. Prosa mekanikoa, nahi bada, baina barru-barrundik sortua.

Azaletik bada ere, aipa dezagun orain gure inguruko zenbait idazle, mendiarekin zer ikusi izan dutenak.

Erdi-aroan Petrarca-k, bere poemetan, Alpeseke galantasuna kantatu zuen...

Frantzian: Châteaubriand-ek, bere ibilaldietan ikusi zuenaren berri ematen digu. Baina zalantzarik gabe J. J. Rousseau eta Voltaire izan ziren —batez ere lehenengoa— mendizaletasunari aurrerakada handia eman ziotenak. Rousseau, naturazale amorratua izanik, Alpetan sortu eta antolatu ziren mendiratzak bihotzez txalotu zituen.

Ez dezagun ahantz, nire ustez idazlerik errepresentatiboena: Antoine de Saint-Exupéry (1900-1944). Idazle honen bizia bera harrigarrikoa zaigu. Pilotoa, bizpahiru aldiz zauritua eta azkenean herioa aurkitu zuen Mediterraneo

gainean zoala. Hegazkinetik ikusten zuena kontatzen digu: «Pilote de guerre», «Vol de nuit», Courrier du Sud», «Terre des hommes», eta abar. Baina bere obrarik ezagunena lehorrean idatzi zuen: «Le petit Prince» (X. Garmendiak «Printze Txikia» deiturarekin euskarara itzulia). Irudipen handiko idazlea benetan.

Eta erdal-idazleen zerrenda luzeegia gerta ez dakigun, aipa ditzagun azkenik, gazteleraz idatzidutenetarik: Alarcón, Pereda, C. José Cela eta Txileko P. Neruda. Idazle honek, olerki samurretan, bere nazioa zeharkatzen duen mendikatearen handitasuna ezagutarazi zigun: Andes-ak.

Eta, euskaldunok zer? Ez ahal dugu inoiz gure inguruko zoragarria abestu?

E. Arrese poetak «Aiako-harria»ri poema sentikorak eskaini zizkion joan zen mendean; horrez gainera badu besterik ere bere poesia hunkigarrietan. Zuberuoa Piarres Topet «Etchahun» barkoztarra, herri-olerkari honek, Bortuetako (Pirineotako) edertasuna erakusten digu, joan zen mendearen hasieran. Geroxeago Dibarrart paregabeak ere bai. «Ikusten duzu goizean, argia hasten denean...», nork ez du ezagutzen? eta egilea? J. B. Elissanburu Sarakoa, eta euskara gozoan bere garaiko paisajeari kantatzen dio. Paisaje hori, Lapurdi eta Zuberuoa ez omen da asko aldatu... beste eskualdeetan bai noski!!

Eta azken bi hauek legez, Gipuzkoan ezin alde batera utz, Iparraguirre urretxuarra «Hara nun diran»en egilea. Orain arte orri honetara ekarri ditugun bost idazle euskaldunak poetak izan baziren ere, gogora dezagun Txomin Agirre, «Garoa» eta «Kresala»ren egilea. Prosa bikainean, begira nola azaltzen den Natura haren luman, «Garoa»tik harturiko zati batean: Joanes artzainari buruz mintzo da: «Argiak ziren Joanesen begi gozoak, oitua zegoan Joanes zerura eta lurrera gabaz eta egunez arreta andiz begiratzen ta inork baño lenago ikusiko zuan, goi aldetik, odei arteko arranoaren ibilera apaña...» Joanesen begi gozoak ere, ez zuten egun hain agudo ikusiko arranoaren egaztadarik!

Eta mende honetan murgiltzen baldin bagara, Orixe eta Lizardi hautatuko ditugu, batez ere bigarren goa.

Orixek, bere poema epikoan, «Euskaldunak», Naturaren goratze ahantzezina egiten digu.

Buka dezagun gure lantto hau, gure liriko handienarekin: Lizardi. Gazterik joan zitzaigun, halare haren lanak sustraittuak gelditu dira euskal poesian. Ezaguna zaigu denori haren «Biotz-begietan» poema liburua. Begira nola ikusi zuen berak Txindoki zorrotza: «Neguz untzi lirain, laino-gainean, Txindoki! Orain, hagokit aurrean, goriak astundu-tantai harrizko, beheri inoiz baino erro-uago...»

Lore txiki bat, ikuskizun polit bat, zerbait ederrik iraungo duen bitartean, izango da poetarik.